

DENNIS RODMAN • Saskibaloia jokalaria

## Artista

HERENEGUN esan zuen badoala NBAtik, «urtebeterako edo». Atzo, aldiz, ezetz, ez doala. Mutil bitxia da. Dennis Keith Rodman du izena.

Oso-oso ezaguna ere bada; NBAko jokalaririk eza-gunenetakoa kantxa barruan; bost aldiz irabazi du titulua. Erreboteak hartzerakoan da Rodman artista, zazpi aldiz izan baita arlo horretan onena. Hauxe ei du sekretua: «Nik ipurdia jartzen dut lanean errebotek hartzerakoan. Zientzia fikzioa dirudi, baina beste ipurdiak paretik kenduz harrapatzen ditut errebotek». Wilt Chamberlain jokalaritikoak askotan esaten du Rodmanek izugarritzko meritua duela, lan zaila delako errebotek hartze hori. «Edozein da gauza 30 puntu sartzeko, baina ez 30 errebotere harrapatzeko». Rodman gai da, nahiz eta ez izan oso-oso altua: 2,03 metro (18 urte zituela, 1,83 zen luze, eta urtebetean hogeizentimetro hazi zen).

Saskibaloia kantxetatik at ere arrunt ezaguna da Rodman. «Munduan nola biziko ginateteke sexurik, gatazkarik eta bortxakeriarik gabe?», dio. Rodmanek, nonbait, hirurak behar ditu. «*Showman* bat naiz». Batez ere orain dela zazpi urtetik da halakoa; orduan banandu egin zen emaztearengandik, eta haien alaba bakarria berekin geratu ez izanak asko sofriarazi zion Rodmani. «Depresioagatik» ez zuen bere taldearekin, Detroit Pistonekin, denboraldi-aurrea jokatu 1992an. Urtebetera eskopeta batekin ikusi zuten, eta bere buruaz beste egiten saiatu zela esan zen.

Harrezkero behin baino gehiagotan egon da aditu psikiatrikoen eskuetan. Orain dela bi urte, esate baterako, Chicago Bullsen jokatzeko zuelarik, klubak berak bidali zuen psikiatriko batera. Izan ere, Rodmanek argazkilari bat ostikojo zuen, Minnessotan, NBAko bere hamar milagarren errebotea lortu zuten hain justu. «Barrez ari zitzaidan, eta pentsatu nuen agian etxera joateko gogoa zeukala bere umeekin batera, eta, hala, paretik kendu nuen». NBAko bigarren zigorrik handiena jaso zuen horregatik: 11 partidu eta 25.000 dolar. Indarra dauka mutilak, eta borroka librean indar erakustaldiak egitea ere gustatzen zaio. Behin han azaldu zen *ring* batean, beltzez jantzita eta txapel luze batekin, borrokalari profesional baten kontra lehiatzeko. «Oso esperientzia po-



ARTXIBOKOA

*Rodmanek zineman saiatu nahi du, baina saskibaloian segituko du, «oraindik» ez duelako azken minutua biluzik jokatu*

lita izan da, eta espero dut gehiagotan borrokatzea. Kirola eta ikuskizuna beste era batera ikusteko era bat da», esan zuen borrokaren ostean.

Rodmanek garai bateko Rodman «gorrotatu» egiten du, «nortasunik gabeko Rodman hura». Oraingo Rodman, aldiz, «biziki» maite du, «nahi» duena egiten duelako, baina betiere besteekin harremanetan egonez. «Batzuek diru asko dute, baina beren munduan bezala bizi dira diru horrekin, eta gero ohartzeko dira iritzi pertsonalik ere ez dutela, eta tamalgarrria da hori». David Stern NBAko zuzendari nagusiarentzat ere «tamalgarrria» da Rodmanen bizimodua, Ligari irudi aldetik kalte egiten omen ziolako jokalaritaren bitartean. Behin, adibidez, Chicagoren eta Utah Jazzen arteko finala zela kausa, Rodmanek egundokoak esan zituen Utah estatuko mormoiaren kontra, eta Sternek gogor kritikatu zuen hura, «lekuz kanpo baitaude adierazpen arrazistak». Rodman *Play boy* aldizka-

rian, Stacey Yarborough modeloarekin batera, guztia bistan zuela azaldu zenean ere, lotsatuta ibili ziren egun batzuetan Chicago Bullsekoak eta NBAkoak; Rodman ez, Rodman gustura protagonista sentitzeagatik, bera baitzen aldizkari batean biluzik azaldu zen NBAko lehen jokalaria. Beste behin, gauetako leku berezi horietako batean agertokira igo eta bereak eta bi egin zituen emakume ugarien aurrean. Diotenez, emakume askok desio dute Rodman. Eta hark «jakin» du horretaz baliatzen, emakume dezenteekin izan dituelako harremanak azkenaldian. Esaterako, Madonna abeslariarekin. «Madonnak egun batean esan zidan joateko hotel jakin batera, haurdun uzteko». Orain Carmen Elektra aktoreekin ezkondu da, mozkortuta zegoela ezkondu ere. «Drogak ez, drogak ez zaizkit gustatzen, baina edatea bai. Gai naiz arrainak bezala edateko», dio Rodmanek.

Jokoan egitea ere laket zaio. «Asteburuan Las Vegasen jokoan ehun mila dolar gastatzeko lain irabazten badut, ni pozik». Eta kontent da, azkeneko urteetan milioika eta milioika dolar irabazi dituelako saskibaloian jokatzeko. Publizitate bidez ere bai. Autografoekin ere irabazten du, bakoitzeko 85 dolar patrikaratzen ditu eta; egun batean sei mila sinatu zituen denda batean. Rodmanek badaki, bai, negozioa egiten. Beste adibide bat: bere autobiografiaren aurkezpenean, liburuak oihartzun handiagoa lor zezan, nesken ezkontzako arropaz jantzita azaldu zen.

Bistan da, beraz, mutil bitxia dela. Artista bat. Orain zinema munduan izan nahi du izarra. «Baten batek sartu dio hori buruan», esan du haren ordezkariak. Gustukoa du zinema Rodmanek. Baina, dagoeneko 37 urte dituen arren, saskibaloian segituko du. Izan ere, hitza bete nahi du: «Jarrantzaileei esan nien neure azken partiduko azken minutua biluzik jokatu dudala, eta oraindik ez dut arroparik gabe jokatu». Fitxatzen duen taldeko kideek, beraz, San Antonio Spurseko garaian David Robinson-eta bezala egongo dira: «Partidua hasi baino ordu erdia lehenago al-dageletako pasabidera begira, Rodman noiz helduko».

Enekoitz Esnaola

## Izotz hockeya ♦

### Baliteke baliorik gabe uztea Angelu-Rouen partida

Angeluko Lionel Bilbao kapitainaren zigorra da arrazoia

Koldo Alduntzin / Donostia

AZAROAREN 24an Angeluko eta Amiensek jokatu-tako partida albiste iturri da berriro Frantziako Elite Ligan. Partida hartan, alboko epailea lurreratu zuen Bilbaok nahi gabe, eta, ondorioz, 10 partidako zigorra ezarri zioten. Angeluk errekurtsioak ezarri zituen, baina ez ziren bideratu, nonbait, eta jaso zituen gutunetan ez zuten zigorra berresten. Hori dela eta, Bilbao jokatzeko hasi zen urtarilaren 9an, eta harrezkero lau partida jokatu ditu; azkena Rouenen kontra, asteartean.

Kontua da Elite Ligako Epaile Batzordeak astearte arratsean jakinarazi ziola Angeluri ez zuela epailerik bidaliko partida zuzentzera. Ondorioz, Hormadiko Jean-Michel Lutaudek —beheko mailetako entrenatzailea— zuzendu zuen partida, bertako Decock eta Cantos alboko epaile zituela.

Rouengo Fournier entrenatzaileak onzat eman zuen jokatzeko, baina partida errekurritu egingo zuela adierazi zuen. Neurketan ez zen arazorik gertatu epaileekin. Bestalde, Rouenek 900 kilometroko bidaiara egin zuten, eta kexu ziren Angeluk ez zela Elite Ligako Epaileen Batzordearen berri eman.

### Azken lau partidak baliogabe ditzakete

Gaillaguet da Frantziako Elite Ligako lehendakaria, eta Apelazio Batzordea zuzentzea erabaki zuten, baina ez zenez Epaile Batzordearen gustukoa, erabaki zorrotz hori hartu zuen. Errekurtsioa bideratze prozeduran dela, jokalariek joka dezake partidarik.

Taburetek, Angeluko buruak, epaileen jokaera salatzea erabaki zuen, Ligak baimena eman baitzion Bilbaori jokatzeko. Hala ere, baliteke Bilbaok jokaturiko azken lau partidak baliogabetzea.